

AuzoEkin.

Talde eragilearen sorrera.

Landa-eremuak.

1. Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: apirilak 9

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: Udaletxean

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Xabier Murua, Osoigo enpresako ordezkaria.
- o Hegoa Galguera, Osoigo enpresako ordezkaria.
- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 15 pertsona bertaratu ziren, 4 emakume eta 11 gizon.

- Auzoak:

- o Bedaio (2)
- o Olarrain (2)
- o Aldaba (3)
- o Aldabatziki (4)
- o Urkizu + Auzotxikia (4)

-Batez besteko adina: 50

-Gazteenak 22 urte eta zaharrenak 71 urte.

2. Diagnostiko-prozesuaren eguneratzea

Ongietorria eta saioaren kokapena

Garikoitz Lekuonak (Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoak) ongietorria eman die bertaratutakoei eta AuzoEkin prozesuaren baitan gaurko bilera non kokatzen den azaldu du laburki eta horrekin batera AuzoEkin prozesuaren helburuak gogoratu ditu.

Bestalde, prozesuaren oraingo fasea azaldu, eta hurrengoak identifikatu ditu dinamika hasi baino lehen.

3. Saioaren dinamizazioa eta emaitzak

Dinamikari aurkezpen txiki batekin eta prozesuaren inguruko espektatibak partekatzeko erronda batekin eman genion hasiera. Horrekin batera, *Nola definituko zenuke landa-eremua?* galderari erantzuten hasi ziren auzotarrak. Erantzunak honako hauek izan ziren: periferia, natura mantentzen duen eremua, zabaldua dagoena, baserria eta lasaitasuna.

Horri lotuta, bigarren galdera hau izan zen: *Zein da auzo/eremuarekiko nire konpromisoa?* Erantzunak honako hauek izan ziren: jatorria; jarraipena; beharra; etorkizuna; konpromisoa (arbasoak/herentzia mantendu) eta auzoa ez hiltzeko behar bat, segimendu bat, mantentzeko beharra (identitatea).

Behin galdera hauek erantzunda, eta giroan sartuta, talde eragilearen identifikazioarekin hasi ginen. Horretarako, beheko txantiloia erabili genuen, eta eskatu genien identifikatu eta sailkatzeko eremuan ezagunak dituzten eragile, pertsona eta bestelako kolektiboak: ehun soziala eta biztanleria, ehun instituzionala eta ehun ekonomikoa.

TOLOSA 

DIAGNOSTIKOA / DIAGNÓSTICO

Talde eta eragileen identifikazioa / Identificación de grupos y agentes clave


auzoekin

EHUN SOZIALA ETA BIZTANLERIA (Talde eta eragile garrantzitsuak)	EHUN INSTITUZIONALA (Talde eta eragile garrantzitsuak)	EHUN EKONOMIKOA (Talde eta eragile garrantzitsuak)
TEJIDO SOCIAL Y POBLACIÓN (Grupos y agentes clave)	TEJIDO INSTITUCIONAL (Grupos y agentes clave)	TEJIDO ECONÓMICO (Grupos y agentes clave)

Beheko hau da dinamikan ateratako emaitza:

<i>Talde eragileen identifikazioa</i>	AUZOTXIKIA+ URKIZU	ALDABATXIKI	ALDABA	BEDAIO+ OLARRAIN
Ehun soziala eta biztanleria	-Joseba Arregi -Antton Iraola -San Pedro Eliza -Alurtxiki elkarte -Pello	-Miguel Marz Lasa -Mikel Gralenea Urrutia -Iñaki Egiguren -Arkaitz Uranga -Lagunartea Elkartea -Amaia Ulacia Epelde	-Auzo elkarte -Eliz komisia	-Bedaio kultur elkarte -Artubi -Aitziber (harremanetarako pertsona) -Eliza -Jon, elkarteko lehendakaria -INO -Lagun artea elkarte -Xabier Bengoetxea -Agustin Gurrutxaga -Peña Abraham Olano -Eliza
Ehun instituzionala	-Taxi-zerbitzua -Eskola Autobusa	-Taxi zerbitzua -Autobusa	-Taxi zerbitzua	-Taxia, Aldundiarekin -N-1 -Abiadura handiko trena -Renfe
Ehun ekonomikoa	-Okina -Produktu izoztuak -Arrain-saltzailea	-Oilotegia -Gasolindegia -Ogi banaketa -Itsastegi Sagardotegia	-Arrain-saltzailea -Okindegi ekologikoa	-Okina -Fruta banatzailea -Arrain saltzailea -Butano partitzailea -Abaetxe (taberna)

Beheko txantiloia erabilita, eskatu zitzaizen sailkatzeko identifikatutako talde eta eragileak eremuan duten presentzia eta inplikazioaren arabera: inplikazio handia (zentroan), inplikazio ertaina (erdian) eta inplikazio txikia (inguruan).



Hona hemen dinamikan ateratako emaitzak:

Talde eragileen sailkapena	AUZOTXIKI+URKIZU	ALDABATXIKI	ALDABA	BEDAIO+ OLARRAIN
Inplikazio handia	-Taxi zerbitzua -Eskola autobusa -Alurtxiki elkarte -Antton Iraola -Pello Eleiza -Joseba Arregi	-Mikel Gralenea Urrutia -Arkaitz Uranga -Lagunartea Elkartea	-Auzo elkarte -Auzo guztientzako erabilera anitzeko lokala (bilera gela, liburutegia)	-Bedaio kultur elkarte -Aitziber -Jon

Inplikazio ertaina	-Panaderoa -Konjelatu produktuak -Arrain saltzailea	-Amaia Ulacia -Epelde -Iñaki Egiguren -Miguel Marz -Lasa -Isastegi -Sagardotegia -Oilotegia	-Eliz komisioa -Okindegi ekologikoa -Taxi zerbitzu subentzionatua	-Eliza -Abaetxe
Inplikazio txikia	-San Pedro Eliza	-Ogi banaketa -Gasolindegia -Taxi zerbitzua -Autobusa	-Arrantzalea	-Taxia -INO -Okina -Fruta banatzailea -Renfe

Beheko txantiloia erabilia, eremuko indargune eta mehatxuak identifikatzeko eskatu zitzairen. Bizilagunetako batek proposamen zehatz batzuk ere egin zituen.

TOLOSA 

DIAGNOSTIKOA / DIAGNÓSTICO
INDARGUNE ETA MEHATXUAK / FORTALEZAS Y DEBILIDADES

auzoekin

KORAPILOAK / BALAZTAK (-)  ----- NUDOS / FRENOS (-)	PALANKAK / MOTORRAK (+) -----  PALANCAS / MOTORES (+)
PROPOSAMENAK (>) PROPUESTAS (>)	

Hona hemen emaitza:

<i>Indargune eta mehatxuak</i>	AUZOTXIKIA+ URKIZU	ALDABATXIKI	ALDABA	BEDAIO+ OLARRAIN
Korapiloak/ Balaztak	-Tabernarik ez -Errepide estua -Etxebizitza planik ez -Udaletxeko ekintzen gauzatze geldoa -Mendi bide zikinak -Aparkaleku gaizki seinalizatua -Garraiorik ez, kanpotarrentzat	-Kutsadura elektromagnetikoa -Ez dugu herriko ur sarerik -Udalarekin komunikazio-bide komunik ez -N-1 zarata eta kutsadura -Benta aldetik, bidegurutzean oinezkoentzako pasabidea falta da	-Auzogune arteko errepide falta -Errepidea -Hirigintza -Auzo elkarteko egoitzen mantenurako eta ekitaldietarako diru laguntzen atzerapenak.	-N-1 Renfe -Urbano/landare n arteko trantsizio gunea -Errelebo falta -Aparkalekua -Ez bidegorria -Herri bideak ez zainduta -Udaletxearekin kontsiderazio/ko munikazio gutxi -Herri-guneko urbanizazio falta -Irisgarritasuna -Errepidearen egoera
Palankak/ Motorrak	-Alurtxiki elkarte -Auzotar batzuen inplikazioa -WhatsApp talde berria -Inguruko mendiak eta ibilbideak -Kokapena	-Tolosarekiko gertutasuna -Lagun artea elkarte -Ekimen kulturalak -Alegiako mendi bizikleta bideak	-Ekitaldi kulturalak -Auzo elkarteko egoitza -Intxur mendiko ibilbidea	-Auzo-elkartea -Tolosako gunetik gertu -Oteiza eskultura -Urbietara ubidea -Jendearen inplikazioa -WhatsApp taldea -Kultur ekitaldiak
Proposamenak		-Ur sarearen beharra asetzea ezinbestekoa -N-1eko kutsaduratik babesteko pantaila		Olarrain: -Ume parkea -Auzo-elkarteko ekintza kulturekin indartu: auzoa ezagutarazi

Beheko txantiloia erabilita, eremuan parte hartzeko erabiltzen diren espazio eta kanalak identifikatzeko eskatu zitzaien.

TOLOSA 

DIAGNOSTIKOA / DIAGNÓSTICO

Eremuko espazioak eta kanalak / Espacios y canales de la zona

auzoekin

ESPAZIOAK ETA INFORMAZIO KANALAK

ESPACIOS Y CANALES DE INFORMACIÓN

ESPAZIOAK ETA PARTE HARTZE KANALAK

ESPACIOS Y CANALES DE PARTICIPACIÓN

DOKUMENTUAK

DOCUMENTOS

Hurrengoa da dinamikan ateratako emaitza:

<i>Eremuko espazioak eta kanalak</i>	AUZOTXIKIA+ URKIZU	ALDABATXIKI	ALDABA	BEDAIO+ OLARRAIN
Espazioak eta informazio kanalak	-Ahoz ahokoa -WhatsApp taldea -Informazio-panela	-Lagun artea elkarte -WhatsApp taldea	-Batzordearekin WhatsApp taldea -Auzo elkarteko emaila udalarekin -Elkarte gastronomiko WhatsApp taldea.	-Auzo elkarte -WhatsApp taldea -Buzoiaren ondoko panela -Web-orria -Instagram

Espazioak eta parte-hartze kanalak	-Auzoko festak -Ekintzak -Auzo bazkaria -Auzo elkarte -Hileroko hamaiketakoa	-Lagun artea elkarte -Btt martxa -Auzo ezberdinak -Santa Ageda eta bezpera -Abenduak 24a	-Mendi martxa -Uganeke festa auzogunea -Egoitzako liburutegia -Auzoko festa -Frontoia -Eliza	-Artubi elkarte -Eliza -Ekitaldi irekiak frontoian (hala nola, mendi martxa, zahartze aktiboa...) -Jubilatuen txangoa -Auzoko festak -Mountain bike -Bazkideen eguna -Santa Ageda +Gabonak
Dokumentuak	-Etxebizitza proiektua -Herri- eta mendi-bide mapa			- Bedaio: -Hiritik At proiektua -Tolomendiren proiektua -2005eko hirigintza-plana -Herri-bideen mapa

Azkenik, beheko txantiloia erabilita azken hausnarketa bat egiteko eskatu zitzaien bizilagunei: *Zergatik nahi zenukete parte hartu?, Zertarako nahi dut Toki Garapenerako Estrategia?, Zer espero dut?, Nire ustez, zer eman edo partekatu dezaket?*

TOLOSA  TALDE ERAGILEAK GRUPO MOTOR auzoekin		
ZERGATIK NAHI ZENUKE PARTE HARTU? ¿POR QUÉ QUIERO PARTICIPAR? (Arrazoiak / Motivaciones)	ZERTARAKO NAHI DUT "TOKI GARAPENEO ESTRATEGIA"? ZER ESPERO DUT? (Helburuak eta itxaropenak)	NIRE USTEZ, ZER EMAN / PARTEKATU / JOKOAN JAR DEZAKET? (Kapitalak)
	¿PARA QUÉ QUIERO "UNA ESTRATEGIA DE DESARROLLO LOCAL"? ¿QUÉ ESPERO? (Objetivos y expectativas)	¿QUÉ CREO QUE PUEDO APORTAR / COMPARTIR / PONER EN JUEGO? (Capitales)

Hurrengoa da dinamikan ateratako emaitza:

Zergatik nahi zenuke parte hartu?

- Moldatu egin behar gara, beste landa eremuekin pixkanaka moldatu
- Besteekin amankomunean gauza asko (landa eremua)
- Erabakitzeko ahalmena
- Guk erabakitzeko, baina, nork gauzatuko du azken erabakia?
- Exijentzia
- Emaitzak ikusi nahia
- Zergatik pentsatu behar dugu honek emaitzak emango dituela?
- Tramiteak, proiektuak....
- Elkarri entzutea

- Adostasunak (indartsuagoak)

Zertarako nahi dut Toki Garapeneko estrategia? Zer espero dut?

- Erabakitzeko ahalmena

Nire ustez, zer eman edo parteka dezaket?

- Adostasun batera iritsi behar da beste eremuekin
- Baliabideak aprobetxatu
- Zergatik ez egin etxebizitza plan bat auzo guztientzako?
- Mugikortasun-plan bat
- Parte-hartze kolektiboa eremu guztiekin.

Saioko irudia:

